

# ONDAREAREN EUROPAR JARDUNALDIAK
# JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO
## 2003

ONDAREA
PATRIMONIO

## ABADIAK, KOMENTUAK ETA MONASTERIOAK
## ABADÍAS, CONVENTOS Y MONASTERIOS DE BIZKAIA

irailaren 25etik 28rarte
del 25 al 28 de septiembre

01



## GIZAKUNDEKO KOMENTUA

## CONVENTO DE LA ENCARNACIÓN

Gizakundeko monasterioaren hastapenak, Somera kaleko San Domingo ordenako serorategi apal batean daude. Ibeni aldirira lekualdatu zen XVI. mendearen hasieran. Kokapen hori, gaur eguneko berbera, izatearen ondorioz, zenbait uholde jasan izan zituen. Eliza, 1513 eta 1526 urte bitartean eraiki zen. XVIII. mendearen amaieratik aurrera, Gizakundeko komentua hustuz ari zen eta XX. mendeko hirurogei hamarkadaren amaieran, mojek Leioara lekualdatzea erabaki zuten. 1995etik hona, Eliza Arteko Elizbarrutiko Museoaren egoitza dugu. Gaur egun eliza eta kalostra bakarrik daude, komentuko beste eraikin batzuk galdu egin baitira.

*Plaza de la Encarnación, 9. BILBAO*

Los orígenes del Monasterio de la Encarnación se encuentran en un modesto beaterio de la orden de Santo Domingo localizado en la calle Somera. Se trasladaría al arrabal de Ibeni a principios del siglo XVI. Fue esta posición, la actual, la que ocasionó que sufriese varias inundaciones. La iglesia fue construida entre 1513 y 1526. Desde finales del siglo XVIII el convento de la Encarnación comenzó a declinar y a finales de la década de los sesenta del siglo XX las monjas decidieron trasladarse a Leioa. Desde 1995 es sede del Museo Diocesano de Arte Sacro. El conjunto esta formado actualmente por iglesia y claustro, habiéndose perdido otras dependencias del convento.

02

## ANTZINAKO JESUSEN KONPAINIAKO SAN ANDRES IKASTETXEA

## ANTIGUO COLEGIO DE SAN ANDRÉS DE LA COMPAÑÍA DE JESÚS

Jesuitak izan ziren, Domingo de la Gorolla-ren dohaintza baten bidez, eliza eta ikastetxearen sustatzaileak 1604-1620 urte bitartean. Eliza, aita Ramirez jesuitaren planoen arabera hasita, ez zen guztiz amaitu 1673-75 urteak arte. Jesuiten arkitektura eta kutsu herrerianoko klasizismoaren adibide aipagarria dugu. Bi eraikinak zeuden hiribilduzko kanpoko aldean. Baina 1767an jesuitak kanporatu egin zituzten Espainiatik eta, ordutik aurrera, ikastetxeak galdu egin zuen elizarekin komunikazioa. XIX. mendean, ikastetxea Erregistro Zibila eta Lurraldeko Auzitegia bihurtu zen, 1921ean eta Arkeologi eta Etnografi Museoa bezala, jendeari ateak ireki arte. Eliza, 1768an parrokia bihurtu eta ordeztu egin zuen San Anton zubiaren ondoko izen berekoa.

*La Cruz, 2. BILBAO*



Los jesuitas, merced a una donación de Domingo de la Gorolla, son los promotores de la construcción de la Iglesia y el Colegio entre los años 1604-1620. La iglesia iniciada según planos del jesuita padre Ramírez, no se finalizó por completo hasta 1673-75. Supone un ejemplo destacable de la arquitectura jesuítica y del clasicismo de gusto herreriano. Ambos edificios se localizan en zona extramuros de la villa. En 1767 se produjo la expulsión de los jesuitas de España y a partir de ese momento el Colegio pierde su comunicación con la iglesia. En el siglo XIX, el Colegio se transformó en Registro Civil y Audiencia Provincial, hasta que en 1921 se abre al público como Museo Arqueológico y Etnográfico Vasco. La iglesia en 1768, se convirtió en parroquia, sustituyendo a la que con igual denominación se localizaba cerca del Puente de San Antón.

03



## MESEDEETAKO ELIZA-KOMENTUA

## IGLESIA CONVENTUAL DE LA MERCED

Itsasadarraren ezkerreko bazterrean kokatua, mesedeetako erlijiosoen San Joseren komentukoa izan zen. Ditugun datuen arabera, ordena horretako bi serorategi zeuden, bata Najan eta bestea Somera kalean. Agirietan komentuaren lehen aipamena 1619koa da, gaur egun kontserbatzen den eraikin barrokoa eraiki baino 44 bat urte lehenagokoa. 1750ean berreraiki zen eta, aldi garaikidean, zenbait gorabehera jasan izan ditu. 1989an, komentuaren aztarna bakarra, eliza alegia, erosi egin zuen Bilboko Udalak, kontzertu-aretoa bihurtuz.

*Muelle de la Merced, 1. BILBAO*

Situada en la orilla izquierda de la Ría perteneció al convento de San José de religiosas mercedarias. Hay datos que nos hablan de la existencia de dos beaterios de esta orden, uno en la Naja y el otro en la calle Somera. La primera mención documental del convento es de 1619, unos 44 años antes de que fuese construido el edificio barroco que hoy se conserva. En 1750 se reedificó y en época contemporánea ha sufrido diversos avatares. En 1989 este único resto del convento que es la iglesia fue comprado por el Ayuntamiento de Bilbao transformándose en sala de conciertos.

04

## SORKUNDEAREN KOMENTUA

## CONVENTO DE LA CONCEPCIÓN

Monasterio honen sorrera, XV. mendearen erdialdera Abandoko elizatean kokaturiko serorategian izan zen. San Mames baselizatik gertu, agian. Serorategia, 1530erako, Najan zegoen jadanik lekualdatua, Abando-RENFE eta Santanderreko tren geltokien lurretan. Hango serorak, 1614. urte inguruan klausura hartzerakoan, Mariaren Sorkunde Garbiaren ordenako kide egin ziren. Zenbait gorabehera izan eta gero, 1861ean inauguratu ziren Abandoko Sorkundearen komentu eta eliza berria. Gerra Zibilaren hasieran erre eta, amaituz gero, berreraiki egin zen.

*Concepción, 4. BILBAO*



Este monasterio tuvo su origen en un beaterio localizado hacia mediados del siglo XV en la anteiglesia de Abando. Quizás próximo a la ermita de San Mamés. Para 1530 el beaterio ya se encontraba trasladado a la Naja en los terrenos de las estaciones ferroviarias de Abando-RENFE y Santander. Sus componentes, al aceptar la clausura hacia 1614, profesaron la orden de la Purísima e Inmaculada Concepción de María. Tras diversos avatares, en 1861 se inauguró el nuevo convento e Iglesia de la Concepción de Abando. Fue quemado al inicio de la guerra civil y reedificado tras la misma.



Bilbo hiribilduko Askao aldirian sortu ziren XVI. mendearen hasieran San Agustin ordenako bi serorategi: Santa Monikarena eta Itxaropeneko Gure Amarena. Santa Monikako serorek klausura ezarri ahal izan zuten 1623. urte inguruan. Antzinako eraikin hura Askao kalearen hasieran zegoen, gaur egun Metro eta Eusko Treneko geltokiak dauden lekuan. 1860an inauguratu zen Begoñako oraingo komentua. Eraikin isolatua da, eklektiko estilokoa.

*Zabalbide, 61. BILBAO*

## SANTA MONIKA KOMENTUA

## CONVENTO DE SANTA MÓNICA

En el arrabal de Askao de la villa de Bilbao surgieron a principios del siglo XVI dos beaterios de la orden de San Agustín: el de Santa Mónica y el de Nuestra Señora de la Esperanza. Las beatas de Santa Mónica pudieron establecer la clausura hacia 1623. Aquella primitiva construcción, se ubicaba al comienzo de la calle Askao (actualmente las estaciones del Metro y Eusko Tren). En 1860 se inauguró el actual convento localizado en Begoña. El edificio es exento y de estilo ecléctico.

## SANTO DOMINGO KOMENTUA

## CONVENTO DE SANTO DOMINGO

Bizkaiko Jaunen "jauregien" lurran sortu zen 1368an. 1396an lurrak eta jabegoak zabaldu egin ziren, lehen komentua eratu izanik; izan ere, hark, hiribilduan izandako bi sute handien ondorioak jasan zituen. Bi hondamenen ondorioz, berreraikitzean era desberdinez ekin zioten, baina lehenagokoaren aztarnak aprobetxatuz. Gaur egun dituen elementuen artean, hurrengoak dira aipagarrienak: gotiko-errenazentista estiloko eliza, elizpea (Andre Mariaren elizatik ekarria), erdi behe-aroko harresia, komentuko elementuen itxitura dena, "torrezar" (erdi aroko antzinako dorre bat), e.a.

*Santo Domingo, 3. LEKEITIO*



Fundado en 1368 en el terreno de los "palacios" de los Señores de Bizkaia. En 1396 se registran ampliaciones de terrenos y propiedades que configuran el primer convento, el cual sufrió las consecuencias de los dos grandes incendios sufridos en la villa. Ambas catástrofes suponen la reconstrucción de forma diferente pero aprovechando restos del anterior. Actualmente, está formado por diversas dependencias de entre las que destaca la Iglesia de estilo gótico-renacentista, el pórtico ( procedente de la iglesia de Santa María) y la muralla bajo medieval que sirve de cierre a las dependencias del convento, "torrezar" (una antigua torre medieval).



Zenbait ikerlariren iritziz, 968. urte urrunean sortu zen, baina hori ez dago datu argien bidez berretsia. Arkeologiaren ikuspegitik, elizaren barruan dokumentatu izan dira eraikin erromaniko eta hilerri baten aztarnak, XII. mendearen amaiera eta XIII. mendearen hasiera bitartekoak. Klero sekularra bizi izan zen bertan, erregela eta abade baten agintaritzaren pean. Kolegiatarena izan zen haren maila. Etxe-multzo osoa, espazio ireki edo plaza baten inguruko eraikinez dago osatua: eliza gotiko berankorra, bi kapera errenazentista eta apaindura landuzko sarbidearekin, batzar aretoa, kalostra errenazentista, abadearen eta kalonjeen antzinako etxeak, gurutz-bidea e.a. 1994an hasi zen guztiaren zaharberritzea eta, gaur egun, La Olivatik (Nafarroa) etorritako zisterreko fraideen monasterioa dugu.

## ZIORTZAKO MONASTERIOA

## MONASTERIO DE ZENARRUZA

*Ziortza-Zenarruza. MARKINA-XEMEIN*

Diversos autores remontan su origen al año 968, pero sin datos claros que lo confirmen. Arqueológicamente se han documentado en el interior de la iglesia los restos de un edificio románico y una necrópolis datados entre finales del siglo XII y comienzos del siglo XIII. Fue un centro religioso de clérigos seculares regidos por una regla bajo autoridad de un abad y con el rango de colegiata. El conjunto está compuesto por una serie de edificios en torno a un espacio abierto o plaza: la iglesia gótico tardía con dos capillas renacentistas y acceso con decoración esculpida, la sala capitular, el claustro renacentista, las antiguas casas del abad y los canónigos, el vía crucis... En 1994 se inicia su restauración y pasa a ser monasterio regido por los monjes cistercienses procedentes de La Oliva (Navarra).

## KARMELDARREN KOMENTUA

## CONVENTO DE LOS CARMELITAS

Markina hiribilduko antzinako atarien arteko batetik (Goikoportala) gertu, 1691n sortu zuen Ignacio de Munibe y Axpe, Ziortzako Kolegiatako abadeak. 1809 eta 1813 urte bitartean, gudatalde frantziarrak egon ziren bertan. Kaleratzea izan ostean 1839an, 1868an eta komentu honetatik, ordenaren zaharberritzea hasi zen euskal eta espainiar beste lurralde batzuetan. Hezkuntza eta kultur-gune eragin handikoa izan zen, batik bat euskal kulturari dagokionean. Eliza barrokoa gailentzen da, 1724an inauguratua. Badu, baita ere, 22.000 liburu inguruko liburutegia.

*Artibai, 3. MARKINA-XEMEIN*



Situado próximo a uno de los antiguos portales de la villa de Markina (Goikoportala), fue fundado en 1691 por el abad de la Colegiata de Cenarruza, Ignacio de Munibe y Axpe. Entre 1809 y 1813 se instalaron en él las tropas francesas. Tras la exclaustración de 1839, en 1868 se inició desde este convento la restauración de la orden a otros puntos del territorio vasco y español. Fue centro de irradiación educacional, y cultural de gran influencia, en especial, en relación con la cultura vasca. Destaca la iglesia barroca inaugurada en 1724 y dispone de una biblioteca de unos 22.000 libros.



Bizkaian, agiri bidez frogaturiko komentu sorrera antzinakoena dugu. D. Tello kondeak eta Dña. Juana de Lara, Bizkaiko jaun zirenek sortu zuten 1357an, Bermeo hiribildura sartzeko atarien arteko batetik hurbil kokatuz. Komentuaren multzoa, hurrengo hauek osaturik dago: Errege Katolikoak gotiko estiloko eliza, neoklasiko estiloko komentua eta XV. mendearen bigarren erdialdeko kalostra dotorea. Gaur egun, aita frantziskotarren egoitza da.

## SAN FRANTZISKO KOMENTUA

## CONVENTO DE SAN FRANCISCO

*Plaza Taraska. BERMEO*

Se trata del convento de fundación más temprana del que se tiene constancia documental en Bizkaia. Fue fundado por el Conde D. Tello y Dña. Juana de Lara, señores de Bizkaia, en 1357 y se instaló próximo a una de las puertas de acceso a la villa de Bermeo. El conjunto conventual está formado por la iglesia de estilo gótico Reyes Católicos, el edificio conventual de estilo neoclásico y un magnífico claustro de la segunda mitad del siglo XV. Es actualmente residencia de padres frasciscanos.

## SANTA KLARA KOMENTUA

## CONVENTO DE SANTA CLARA

Juan de la Piedra Berastegik 1643an bidalitako legatu bati esker, 1675ean eraiki zen klaratar ordenako klausurako erlijiosentzat izateko. Elizaren oinetan dago klausura eta, gainean, korua, pintura bitxidun 1777ko organo barroko batekin. Elizari atxikita arau-emailearen gela dago, 1653an eraikia. XIX. mendean, enkanteak eta desamortizazioak jasan zituen. Eraikinaren mantenu garestia eta egoera txarra zirela-eta, klaratarrek itxi egin zuten komentua 1984an. Antzinako instalazioak sakonetik eraldatuz gero, "ENKARTUR" Turismo Encartaciones Erakundearen egoitza dago bertan, eta baita jantokia eta hotela ere.

*Campa de las Monjas,1. BALMASEDA*



Se construyó en 1675 gracias a un legado enviado en 1643 por Juan de la Piedra Berástegi, para acoger a religiosas de clausura de la orden de las clarisas. A los pies de la iglesia se localiza la clausura y encima se encuentra el coro con un órgano barroco de 1777 que presenta curiosas pinturas. Adosada a la iglesia se localiza la preceptoría construida en 1653. En el siglo XIX fue afectado por subastas y desamortizaciones. Debido al costoso mantenimiento y su deterioro, las clarisas clausuraron el Convento en 1984. Tras una profunda reforma en sus antiguas instalaciones se localiza la Sede de la Entidad Turismo Encartaciones "ENKARTUR", además de restaurante y hotel.



Komentu hau, agustindar mojen komunitate batek sortu zuen hiribilduz kanpo 1586. urtean. 1600. urte inguruan, etxe baten eta monasterioaren eraikuntza hasi zuten. Eliza, Juan de Ansolak eraiki zuen 1651 eta 1669 urte bitartean. Garai hartatik fatxada baino ez da kontserbatzen, hiru arku beheratuzko ataria, horma-konka eta kanpai-hormarekin. Aldameneko eraikinen arteko bat berregin zen 1890ean eta, Gerra Zibileko bonbardaketen ondorioz, berreraiki egin zen. Gaur egun, bere instalazioen artean, Santa Rita izeneko ikastetxea du.

## SANTA SUSANA KOMENTUA

## CONVENTO DE SANTA SUSANA

*Komentukale,3. DURANGO*

Este convento se fundó en 1586 extramuros por una comunidad de monjas agustinas. Hacia 1600 iniciaron la construcción de una casa y el monasterio. Entre 1651 y 1669 fue construida la iglesia por Juan de Ansola. De esta época sólo se conserva la fachada con un porche de tres arcadas rebajadas, una hornacina y una espadaña. Uno de los cuerpos laterales fue rehecho en 1890 y tras los bombardeos de la Guerra Civil fue reedificado. En la actualidad cuenta entre sus instalaciones con un Colegio denominado de Santa Rita.

## SANTA ANA KOMENTUA

## CONVENTO DE SANTA ANA

Komentu hau, San Roke aldirian dago kokatua, hiribildutik irtetzeko atarien arteko batetik hurbil. Komentua 1692koa da, Agustin Ruiz de Azcarraga izanik taxuketagilea. 1700. urtean, Ermuko Santa Margarita komentuko hogeita bi erlijiosa domingotar joan ziren gure komentua sortzera. Bertako "Gramatikako Ikasgelan" bi urtez egon zen ikasle San Valentin de Berrio-Otxoa, Bizkaiko lehen santu aldarera goratua. Zenbait gorabehera historiko zirela-eta, kanporatu egin behar izan da komunitatea. Gaur egun, Museo Berrio-Otxoa oraintsu berriztatua dago bertan.

*Elizburu,4., ELORRIO*



Este convento se encuentra localizado en el arrabal de San Roque, próximo a una de las puertas de salida de la villa. El convento data de 1692 y su tracista fue Agustín Ruiz de Azcárraga. En el año1700 se trasladan veintidós religiosas dominicas del Convento de Santa Margarita de Ermua a fundarlo. Por su "Aula de Gramática" cursó durante dos años el primer santo canonizado de Bizkaia, San Valentín de Berrio-Otxoa. El convento se ve inmerso en diversos avatares históricos que obligan a la exclaustración de la comunidad. Sus instalaciones son iglesia, convento, casa vicarial y huerto. En la actualidad aloja al recientemente renovado Museo Berrio-Otxoa.



Santa Klara erregelaren peko komentua. Arratia ibaiaren eskuineko bazterrean dago, Zubizarra zubiaren aurrean. Haren lehen sorrera hiribilduaren barruan izan zen 1560. urtea baino lehenago, nahiz eta data zehatza jakin ez. Gaur egun, atezaintzaren gaineko fatxadaren zati bat kontserbatzen da 1643an eraikitako komentutik. Komentuaren gainerakoa eraitsi egin zen 1892an eta neoklasiko estiloan berreraiki 1894rako. Gaur eguneko eliza dela-eta, XVIII. mendearen hasierakoa dugu, nahiz eta teilatua konpondu egin izan XX. mendearen hasieran.

## SANTA ISABEL KOMENTUA

## CONVENTO DE SANTA ISABEL

*Zubizarra,8. AREATZA-VILLARO*

Edificio conventual regido por la regla de Santa Clara. Se sitúa en la margen derecha del rio Arratia y frente al puente de Zubizarra. Su primera fundación fue dentro de la villa, por lo menos anterior a 1560, aunque se desconoce la fecha exacta. Del convento edificado en 1643 se conserva en la actualidad parte de la fachada sobre la portería. El resto del edificio conventual fue derribado en 1892 y reconstruido en estilo neoclásico para 1894. En cuanto a la iglesia actual data de principios del siglo XVIII aunque su cubierta fue remozada a principios del siglo XX.

13